TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

# *APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN "18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" AZPIEREMUARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA*

3. DOKUMENTUA: ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK

3.1. ORDENANTZA OROKORRAK

3.2. LURZATI ERAIKIGARRIEN ORDENANTZA PARTIKULARRAK

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

# 3.1. ORDENANTZA OROKORRAK

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

TOLOSAKO UDALA
2021eko urt. 28an Udalbatzak emana
BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN



# 3.1 Dokumentua

# ORDENANTZA OROKORRAK

AURKIBIDEA

**I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK ETA HIRIGINTZA-ERREGIMEN OROKORRA ........ 2**

1. KAP.- XEDAPEN OROKORRAK........ 2
2. KAP.- ZONAKATZEKO ETA LURSAILAK ZATITZEKO BALDINTZAK........ 5
3. KAP.- PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO BALDINTZAK........ 13

**II. TITULUA INDUSTRIA-LURZATIETAN ERAIKITZEKO ETA LURZORUA ERABILTZEKO ORDENANTZAK........ 18**

1. KAP.- ERABILTZEKO BALDINTZAK........ 18
2. KAP.- ERAIKITZEKO BALDINTZAK........ 20
3. KAP.- BIZIGARRITASUN- ETA HIGIENE-BALDINTZAK, ETA INGURUMENAREN DEFENTSA..... 26
5. KAP.- ZERBITZU-SAREEN ETA APARKALEKUEN BALDINTZAK ........ 32
6. KAP.- DISEINU ARKITEKTONIKOARI BURUZKO BALDINTZAK........ 34

**III. TITULUA.INDUSTRIA-LURZATI GISA KALIFIKATU GABEKO LURZORUAREN OKUPAZIOARI, ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI BURUZKO ORDENANTZAK........ 36**

**IV. TITULUA LURZATI ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK ZAIZKIEN ORDENANTZA PARTIKULARRAK........ 39**

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

# I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK ETA HIRIGINTZA-ERREGIMEN OROKORRA

## 1. KAP.- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. art.- APLIKAZIO-ESPARRUA

Honako ordenantza hauek Ibarra eta Tolosa udalerrietakoa den eta Plan Berezi honen xede den "18.1 (TOLOSA) - IBARRAKO LURSAILAK" azpieremu osoan aplikatuko dira, indarrean jartzen diren une beretik aurrera. Planaren helburua antolamendu xehatua ezartzea da, Ibarrako eta Tolosako plangintza orokorreko dokumentuetako xedapenak betetzeko.

Azpieremutik kanpora loturak eta errefortzuak ezartzeko egin beharko diren eta Ibarrako eta Tolosako Apatta auzoarekin eta auzotik eremuan proposatutako parkearekin oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren urbanizazio-lan osagarriak ere arautzen dira bertan.

### 2. art.- INDARRALDIA

Ordenantza hauek Plan Berezia behin betiko onesteko erabakia argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko dira indarrean, eta bere horretan iraungo dute harik eta indargabetzen diren arte.

Ordenantza hauetako bat edo beste ezeztatzeak, indargabetzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainontzekoen balioan, xedapen horietakoren bat aplikaezina gertatzen denean izan ezik, elkarren arteko erlazioa edo menpekotasuna direla tarteko.

Indargabetzearen helmena hura eragiten duen arauak zehazten duena izango da.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

**3. art.- ITURRI ARAUTZAILEAK ETA HORIEN HIERARKIA**

Ibarra eta Tolosa udalerrietako plangintza orokorreko dokumentuek, indarrean daudenek, osatzen duten esparru arautzailearen baitan garatuko da Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau; dokumentuok Ibarrako “HE 13. APATERREKA" eremuaren eta Tolosako “18. APPATA ERREKA” hirigintza-eremuaren hirigintza-fitxetan daude zehaztuta.

Nahiz eta legeen, erregelamendu orokorren eta maila handiagoko beste xedapen batzuen mende egon, ordenantza hauetan eta lurzati eraikigarri bakoitzaren Ordenantza Partikularretan jasotako zehaztapenak ere errespetatuko dira Urbanizazio Proiektuan eta Eraikuntza Proiektuan.

**4. art.- PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK ETA HORIEK ARAU GISA DUTEN HELMENA**

Proiektu hau honako dokumentu hauek osatzen dute:

1. DOKUMENTUA. MEMORIA
2. DOKUMENTUA. INFORMAZIO- ETA ANTOLAMENDU-PLANOAK
3. DOKUMENTUA. ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK
4. DOKUMENTUA. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA
5. DOKUMENTUA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERLANA
6. DOKUMENTUA. JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA
7. DOKUMENTUA. INGURUMEN AZTERLAN ESTRATEGIKOA

Proiektu honen eduki arauemailea aurreko paragrafoan aipatutako dokumentuetan zehaztuta badago ere, 2. dokumentua (ANTOLAMENDU-PLANOAK), 3. dokumentua (ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK) eta 4. dokumentua (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA) dira, bereziki, izaera arauemailea dutenak eta hirigintza-jarduera arautzen dutenak, eta hirigintza-jarduera hori, beraz, dokumentu horietako zehaztapenei lotu beharko zaie derrigorrean.

Gainontzeko dokumentuek informazio izaera dute funtsean, eta aurrean aipatutakoekin kontraesanik izanez gero, horiek hobetsiko dira, beraz.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Eskala desberdinetan egindako plano arauemaileetako hirigintza-zehaztapen batean desadostasunen bat antzemanez gero, eskalarik handienean egindako planoetan ezarritakoa nagusituko da, baldin eta desadostasuna azken plano horietako edukiaren akats material nabarmena ez bada behintzat.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

## 2. KAP.- ZONAKATZEKO ETA LURSAILAK ZATITZEKO BALDINTZAK

### 5. art.- LURZORUAREN KATEGORIZAZIOA ETA ZONAKATZEA

#### 5.1.- LURZORUAREN KATEGORIZAZIOA

“18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK” azpieremua osatzen duten lurzoruak hiri-lurzoruak dira eta, urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoru kategoria dagokienez, jarduketa isolatuen bidez garatuko dira.

#### 5.2.- ZONAKATZE OROKORRA

Plan Berezi honek eraginpean hartutako lurzoru guztiak industria-erabilerako lurzoruak dira indarrean dagoen antolamendu estrukturalaren arabera, bai Tolosakoak, bai Ibarrakoak.

Batez ere industria-erabilerako jarduera ekonomikoetarako lurzoruak dira, beraz, eta Ibarrako “B. Industria-erabilerako eremua” eta Tolosako “B.10 Industria-erabilera” esparru globalei dagokien erabilera-erregimena ezarriko zaie, nahiz eta eremu honetan baimendutako erabilerak zonakatze xehatuan zehazten diren.

#### 5.3.- ZONAKATZE XEHATUA

Apattaerreka eskualdeko industrialdearen “18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK” azpieremuaren zonakatze edo kalifikazio xehatua proiektuko O-04 planoan (ZONAKATZE XEHATUA) eta artikulu honetan xedatutakoak arautuko du.

Kalifikazio xehatuaren sistematizazioa: plan honetan mugatutako erabilera xehatuko eremuei honako kategoria hauek dagozkie:

- INDUSTRIA-LURZORUA
- BERDEGUNE PRIBATUA

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

TOLOSAKO UDALA
2021eko urt. 28an Udalbatzak emana
BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN


- EKIPAMENDU PUBLIKOA
- ESPAZIO LIBREAK
- BIDE-SAREA
- IBAI-IBILGUA

**6. art.- KALIFIKAZIO XEHATUAREN ERREGULAZIOA**

6.1.- INDUSTRIA-LURZORUA

6.1.1.- Definizioa

Lurzati baten industria-erabileratzat hartzen da lurzatian honako jarduera hauetakoren bat gauzatzea:

- Edozein eratako produktuak, makinak eta instalazioak eskuratzea, eraldatzea edo muntatzea.
- Produktuak, ibilgailuak eta makineria biltegiratzea edo banatzea, eta xehekariei, handizkariei, instalatzaileei, fabrikatzaileei edo banatzaileei hornitzea, salmenta zuzeneko zerbitzua izanda edo izan gabe.
- Ibilgailuak, makinak eta era guztietako aparatuak konpontzea, mantentzea eta horien inguruko zerbitzua ematea.
- Edozein motatako ekoizpenerako, ikerketarako, garapenerako edo berrikuntzarako laborategiak edo zentroak, manipulatutako produktuek eta garatu beharreko ekintzek inolako kalterik eragiten ez dutelako bulego-erabilerarekin parekagarriak direnean izan ezik.
- Erabilitako, manipulatutako edo zerbitzatutako materialengatik, edo erabilitako elementu teknikoengatik, bizitegietarako edo zuzkiduretarako eremuetan egon ezin diren jarduerak, horiek eragin ditzaketen eragozpenen, arriskuen edo deserosotasunen ondorioz. Hori guztia indarrean dagoen legerian ezarritako mugak kontuan hartuta.
- Garraioa errepidez egiten duten agentziak, eta kamioiak, autobusak eta bestelako ibilgailuak edo makina automobilak gordetzeko tokiak.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

- Nekazaritzako industriak, horrelakotzat hartuta nekazaritza-ekoizpenerako prozesuan jarduerari atxikitako lursailak zuzenean erabiltzen ez dituzten jarduerak. Besteak beste, honakoak: adierazitako baldintzak betetzen dituzten nekazaritza-ekoizpeneko industriak, nekazaritzako elikagaien industriak, zerrategiak eta landare eta loretarako mintegiak, eraikin finko eta egonkorrak dituztenak eta landaketak lursail horretan egiten ez dituztenak eta horrekin harremanik ez dutenak.

- Arrain-haztegiak, eta horien kideko instalazioak.

- Kirol-instalazioak, irekiak edo itxiak.

Lurzati bakoitzaren industria-erabileraren baitan sartzen dira erabilera horien jarduera osagarriak, hala nola, aire zabaleko biltegiak, zamalanetarako lekuak, ibilgailuek maniobratzeko lekuak, aparkalekuak eta kidekoak. Industria-erabilera horien erabilera osagarritzat hartzen dira honakoak ere: horiekin lotutako bulegoak, laborategiak eta kalkulu-zentroak, zerbitzuen instalazioak –ur-ponpaketa edo saneamendurako depositu eta instalazioak, hondakinen arazketarako instalazioak eta abar–, garajeak eta ibilgailu zein makineria parkeak eta antzekoak.

<u>6.1.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.</u>

Lurzati bakoitzaren eraikuntza-erregimen zehatza (eraikigarritasuna, lerrokadurak, gorde beharreko tarteak, solairu-kopurua, altuera, eta abar) lurzati bakoitzaren fitxa partikularrean ezarritakoa izango da.

<u>6.1.3.- Erabilera-erregimen orokorra.</u>

- <u>Erabilera nagusiak</u>: industria-erabilera, 6.1.1.- DEFINIZIOA atalari jarraituz.

- <u>Erabilera bateragarriak edo onargarriak</u>: industria-erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak dira hirugarren sektoreko jarduerak (enpresa-zerbitzuak, bulegoak, handizkako saltegiak, eta abar), industriako lurzatien funtzionaltasunerako oztopo ez direnak, hala nola, ostalaritzako zerbitzuak (tabernak, jatetxeak, ostatuak edo hotelak, eta abar) edo kidekoak, ez dira sartzen erakusketa-erabilera gainditzen duten merkataritza-erabilerak, horien azalerak ez du erabilera nagusiaren % 25 gaindituko.

  Eremuan ez da etxebizitza-erabilerarik onartuko, ez instalazio osagarri gisa atezainaren edo zaindariaren etxebizitza izateko, ez etxebizitza isolatu gisa.

- <u>Debekatutako erabilerak</u>: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

#### 6.1.4.- Jabari-erregimena.

Xehatutako azpieremu hau titulartasun pribatukoa da.

### 6.2.- BERDEGUNE PRIBATUA

#### 6.2.1.- Definizioa.

Lurzati baten berdegune pribatua industria-lurzati pribatuei lotuta dagoena da, eta lorategi- eta zuhaizti-espazioetarako eta berdegune edo lorategietarako erabiliko da, berdegune pribatuak dira plataformen arteko ezpondak eta lubetak ere.

#### 6.2.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.

Ez dago ezer eraikitzerik, baina hiri-altzariak onartuta daude.

#### 6.2.3.- Erabilera-erregimen orokorra.

- Erabilera nagusiak: berdeguneak.
- Erabilera bateragarriak edo onargarriak: zerbitzu-azpiegiturak, esparruaren helburu nagusiarekin bateragarriak badira, eta kirol-erabilerak.
- Debekatutako erabilerak: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

#### 6.2.4.- Jabari-erregimena.

Xehatutako azpieremu hau titulartasun pribatukoa da.

### 6.3. EKIPAMENDU PUBLIKOA

#### 6.3.1.- Definizioa

Ekipamendu publikotzat hartzen da ostatu- eta ostalaritza-zerbitzuetarako ekipamendu komunitarioa (tabernak, kafetegiak, pubak, jatetxeak, eta abar), baldin eta hirugarren sektoreko erabilerekin edo bizitegi-, industria- eta ekipamendu-erabilerekin bateragarria bada eta lurzatian ezar badaiteke. Horien ezarpena aisiarako eta jolaserako guneei lotuta egongo da.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

6.3.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.

- Eraikinaren profila: beheko solairua eta goiko solairu bat.
- Gehieneko altuera: gehienez 6 metroko altuera zabalgunearen sestratik gora.
- Ibilgailuen sarbideak: ibilgailuen sarbidea parkera sartzeko bidetik egingo da.

6.3.3.- Erabilera-erregimen orokorra.

- Erabilera nagusiak: ekipamendu komunitarioa, 6.3.1.- DEFINIZIOA atalean ezarritakoari jarraituz.
- Erabilera bateragarriak edo onargarriak: erabilera bateragarriak izango dira aparkalekua (sestra gainean) eta garajea (sestrapean).
- Debekatutako erabilerak: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

6.3.4.- Jabari-erregimena.

Xehatutako azpieremu hau titulartasun publikokoa da.

## 6.4.- BIDE-SAREA

6.4.1.- Definizioa

Bide-saretzat edo bide-sistematzat hartzen dira komunikazio-azpiegiturek eratutako lurzatiak, mugitzeko erabiltzen den baliabidea edozein delarik ere (ibilgailua edo ibilgailurik gabea; motorduna edo motorrik gabea; oinezkoa, bizikleta, autoa; garraio publikoa edo pribatua; eta abar), eta komunikazio eta mugikortasun horiek bide-ardatz edo -elementu lineal bat behar eta erabiltzen badute (errepidea eta kaleak, eta horien galtzada eta espaloiak; aparkalekuak; oinezkoentzako sarea; bidegorria; eta abar).

6.4.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.

Azpieremu horietan ez da eraikinik onartuko, salbuespen gisa, sestra gainean ezarri ahal izango dira kale-bideetan izan ohi diren elementu funtzionalak eta hiri-altzarietako berezko eraikuntzak.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

6.4.3.- Erabilera-erregimen orokorra.

- Erabilera nagusiak: oinezkoen, bizikleten eta motordun ibilgailuen zirkulazioa, bide-motaren mugak kontuan izanda (ibilgailuentzat, mistoa edo oinezkoentzat).

- Erabilera bateragarriak edo onargarriak:
  - Aparkalekua (sestra gainean) eta garajea (sestrapean).
  - Erabilera nagusien erabilera osagarriak: autobus-geltokiak, pisatzeko baskulak, sorospen-postuak, zerbitzuetako eta aisialdiko guneak eta kideko bestelakoak.
  - Zerbitzu-azpiegiturak.
  - Espazio libreak.
- Debekatutako erabilerak: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

6.4.4.- Jabari-erregimena.

Xehatutako azpieremu hau titulartasun publikokoa da.

## 6.5. ESPAZIO LIBREAK

6.5.1.- Definizioa.

Sarbide librea duten jabari publikoko espazio libreetako erabilerak dira, herritarren aisiarako, elementu naturalak mantentzeko (lorategi- eta zuhaizti-eremuak, berdeguneak edo lorategiak), jolas-eremuetarako, plaza eta pasealekuetarako, oinezkoentzako bestelako eremuetarako eta plataformen arteko ezponda eta lubetetarako erabiltzen direnak.

6.5.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.

Espazio horietan orokorrean ez da onartuko eraikuntzarik, salbuespenak izango dira hiri-altzarietako berezko eraikuntzak edo jendearen intereseko azpiegitura publikoak (ur-depposituak, eraldaketa-zentroak, eta abar), bai eta baldintza horietan baimendutako erabileretarako behin-behineko eraikuntzak ere; eraikuntza horien gehieneko profila solairu batekoa izango da.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

<u>6.5.3.- Erabilera-erregimen orokorra.</u>

- Erabilera nagusiak: espazio libreak.
- Erabilera bateragarriak edo onargarriak:
  - Hirugarren sektoreko erabilerak, honako modalitateak:
    - 1. kategoriako merkataritza-erabilerak eta horietara moldatutako hirugarren sektoreko beste erabilera batzuk, behin-behinekoak eta aldi baterako ezarpenak dituztenak –kioskoak, eta abar–.
  - Garaje-erabilera, sestrapean bakarrik.
  - Ekipamendu komunitarioak, behin-behinekoak eta aldi baterako ezarpena dutenak.
  - Zerbitzu-azpiegiturak, eremuaren helburu nagusiarekin (espazio librea) bateragarriak badira.
- Debekatutako erabilerak: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

<u>6.5.4.- Jabari-erregimena.</u>

Xehatutako azpieremu hau titulartasun publikokoa da.

<u>6.6.- IBAI-IBILGUA</u>

<u>6.6.1.- Definizioa</u>

Hiri-ingurunean dauden ur-ibilguek osatutako azpieremua da. Ibilguen sistema publikoari atxikita geratzen da O-04 planoan (ZONAKATZE XEHATUA) mugatutako Apatta errekastoaren bideari dagokion lurzorua.

Horren tratamendua, orokorrean, arloan indarrean dagoen legerian nahiz, hala badagokio, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauriko isurialdeko ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezarritako irizpideetara egokituko da.

<u>6.6.2.- Eraikuntza-erregimen orokorra.</u>

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Ibai-ibilguetako eraikuntza-erregimen orokorra arlo horretan indarrean dagoen legeriak, indarrean dagoen aipatutako Lurralde Plan Sektorialak eta hori garatzeko plangintzak ezarritakoa da.

6.6.3.- Erabilera-erregimen orokorra.

- Erabilera nagusiak: jabari publiko hidraulikoa.
- Erabilera bateragarriak edo onargarriak: ibilguak eta horien ertzak arautzen dituzten lege-xedapenetan baimendutakoak.
- Debekatutako erabilerak: zehatz-mehatz baimenduta ez dauden guztiak.

6.6.4.- Jabari-erregimena.

Xehatutako azpieremu hau titulartasun publikokoa da.

## 7. art.- LURSAILAK ZATITZEA

Antolamenduaren ondorioz sortzen diren lurzatiak O-04 planoan (ZONAKATZE XEHATUA) mugatuta daudenak dira.

Lurzatien barneko zatiketa soilik egin ahal izango da lurzati bakoitzaren fitxa partikularrak baimentzen badu, baina horretarako Xehetasun Azterlana egin beharko da. Ez da onartuko lurzati bakoitzaren fitxa partikularrean adierazitako gutxieneko lurzatia baino zatiketa txikiagorik.

## 8.- art.- ZORTASUNAK

Plan Berezi honetan zehaztutako lurzatiek mugakideekiko zortasun aktiboak eta pasiboak izango dituzte, bai argiei bai ikuspegiari dagokienez. Zortasun horien azalera eta hedapena finka guztietan Plan Berezi honek eta berau garatzen duten Eraikuntza Proiektuek aurreikusitako eraikinak egiteko modukoa izango da. Era berean, azpiegituren sare orokorrak pasatzeko beharrezkoak diren zortasunak ezarriko dira.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

## 3. KAP.- PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO BALDINTZAK

### 9. art.- KUDEATZEKO ETA EGIKARITZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Plan Berezi hau hirigintzako legerian eta plangintza estrukturalean ezarritako erregimen juridiko orokorra eta dokumentu honetan arlo horretan berariaz formulatzen diren xedapenak jarraituz garatu eta egikarituko da.

Jarduketa integratu bakarra mugatzen da, "18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" azpieremuko lurzoru guztiak barne hartzen dituena, eta programazio bakarra izango du.

Horrela, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 152. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP) idatzi eta onartu behar da jarduketa integratu honen garapena eta egikaritzea arautu eta antolatzeko, eta Plan Berezi honekin batera edo ondoren onartu ahal izango da. Urbanizatzeko Jarduketa Programan urbanizazioa egikaritzeko beharrezko bermeen justifikazioa jasoko da.

Antolamendu xehatua Xehetasun Azterlan baten bidez osatu ahal izango da, Plan honetan eta 2/2006 Legean ezarritakoari jarraituz.

"18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" azpieremua nola garatu eta egikarituko den plan honetako 4. dokumentuan (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA) dago zehaztuta, eta hauek dira zehaztapen nagusiak:

Egikaritze-unitateak: Plan Bereziko jarduketa-esparrua osatzen duten lurzoruak garatzeko egikaritze-unitate bakarra mugatu da, azpieremu osoari dagokiona, baina idatziko den Urbanizatzeko Jarduketa Programan (UJP) zehaztuko da behin betiko. Urbanizazio-eginbeharrak eremuaz kanpoko titulartasun publikoko lursailetara ere hedatzen dira, eta antolamendu-planoetan eta, zehazki, O-09 planoan (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA) ezarritako mugaketa errespetatuko da.

Jarduteko sistema: jarduteko sistema hitzarmena izango da, baina idatziko den UJPn zehaztuko da behin betiko. Kasu horretan, 2/2006 Legearen 160. artikuluan arautuko hitzarmena sinatu beharko du jabetzak.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Urbanizazioa: eremuaren urbanizazioa proiektu bakarrean zehaztuko da, eta bertan deskribatuko dira obrak amaitzeko jarraitu beharreko faseak. Azpieremutik kanpora loturak eta errefortzuak ezartzeko egin beharreko urbanizazio-lan osagarrietako esku-hartzeak ere jasoko dira Urbanizazio Proiektuan, beharrezkoak izanik Ibarrako eta Tolosako Apatta auzoarekin eta auzotik eremuan proposatutako parkearekin oinezko irisgarritasuna hobetzeko, bai eta eremutik hurbil dagoen Tolosako hilerriarekin komunikatzeko bidea hobetzeko ere.

## 10. art.- HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ESLEITZEA. HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK.

Hirigintza-plangintza orokorreko dokumentuetako aurreikuspenen arabera, eremuaren gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna (potentziala) 63.050 m² (s) da guztira.

Garapeneko plangintzari dagokio erabilera xehatuak eta bakoitzari dagokion hirigintza-eraikigarritasuna zehaztea. Plan Berezi honek 62.410 m² (s) antolatzen ditu, eta industria-erabilerako lurzatiei dagozkie.

Eremuaren eraikigarritasun ia osoa industria-lurzatietan antolatzen da, beraz, eta baimendutako solairuarte-ehunekoa proportzio berean mantentzen da industria-eraikin guztietan.

Horrek esan nahi du ez direla haztapen-koefizienteak behar, eta, nolanahi ere, balio bakar gisa 1,00 ezarri da.

## 11. art.- ANTOLAMENDUTIK KANPORA UTZITAKO ELEMENTUAK

Antolamendutik kanpora uzten dira plangintzarekin bat ez datozen eraikinak, instalazioak eta erabilerak. Elementu horiek dira, zehazki, gaur egun garaje gisa erabiltzen den eta ekaitz-tangaren ondoan dagoen eraikin bat eta Serbitzu enpresaren egungo instalazioak; elementu horiek O-09 planoan (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA) daude jasota.

## 12. art.- URBANIZAZIOA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitakoaren arabera, eremu osoari eragiten dioten urbanizazio-obra orokorrak zehaztuko dituen Urbanizazio Proiektua

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

idatzi eta tramitatuko da. Proiektu horretan zehaztuko dira proposatutako Jarduketa Integratua garatzean idatziko den Urbanizatzeko Jarduketa Programan (UJP) aurreikusten diren urbanizazio-faseetako bakoitzean egingo diren obrak.

Lurzatietako barruko urbanizazio-obrak Obra Osagarrien Proiektuen bidez egingo dira, eta dagozkien Eraikuntza Proiektuen osagarri gisa tramitatuko dira.

Urbanizazio Proiektua idazten denean Plan Berezi honetako Ingurumen Azterlan Estrategikoan eta Ingurumena eta Paisaia Leheneratzeko Proiektuan ezarritakoa errespetatuko da, azken hori eranskin gisa txertatuko da, besteak beste ibai-ibilguaren eta zuhaitz-landareen babesa, euri-uren isurketaren kontrola, konektibitate ekologikoa, eta abar aintzat hartuta, Apatta errekastoaren ibilgu perimetrala antolamenduan egungo trazadura aldatu gabe integratuko da eta Memoriaren 4. epigrafean adierazitako arauak eta irizpideak, Plan Bereziko planoetan jasotako eskemak eta, hala dagokionean, administrazio eskudunetako zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak ere beteko dira.

Obra-fasean jendearen lasaitasunaren gaineko afekzio negatiboak txikiagotzeko jardunbide egokien eskuliburu bat garatuko duen eranskin espezifiko bat ere izango du. Jardunbide horien artean aipa daitezke lan egiteko aldiak, makineria, behin-behineko desbideratzeak, kamioien eta bideen garbiketa eta hauts eta lohien sorkuntzaren mugaketa.

Zehazki, eremu osoaren urbanizazioa diseinatzean, zola daitezkeen eremu ez-iragazkorrak mugatzeko ahalegina egin beharko da, edo bestelako drainatze-sistema jasangarriak ezarri beharko dira, lurraren iragazketa naturalerako ahalmenari neurri handi batean eutsi ahal izateko.

Urbanizazio-prozesuan, ahal den neurrian, material birziklatuak edo berrerabiliak erabiliko dira. Era berean, positibotzat hartuko dira energia berriztagarrien erabilera, kogenerazioa eta energia aurrezteko neurriak. Argi-kutsadura saihestuko da, eta euri-uren isurketaren kontrol espezifikoa aurreikusi beharko da, URA – Uraren Euskal Agentziak ezarritako baldintzei jarraituz.

Urbanizazio Proiektuak espazio publikoak diseinatzen dituenean erabilera-nahasketa sustatu beharko du, eta zokoak, ezkutalekuak eta irteerarik gabeko lekuak saihestu beharko ditu edo ahalik eta gehien mugatu beharko ditu, aldi berean ibilbideetan ikuspena ona izatea eta, horrez gainera, behar bezala argituta izatea bermatuz. Era berean, seinale argiak, zehatzak eta ikusteko modukoak diseinatu beharko ditu, erabiltzaileek non dauden eta norantz doazen, eta abar, jakin ahal izan dezaten. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak ere errespetatuko ditu.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Urbanizazio Proiektuak hiri-inguruneko irisgarritasunari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituko dio, eta horiek betetzen direla justifikatu beharko da Memorian.

Eremuko urbanizazio-obrak egin ahal izateko Plan Berezi hau, Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Lurzatiketa Proiektua eta dagokion Urbanizazio Proiektua onartu beharko dira.

Garapena eta egikaritzea, hirigintza-jarduketaren erregimenari eta etapak eta epeak jasotzen dituen planari dagokienez, plan honetako 4. dokumentuan (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA) ezarritakora egokituko dira.

Obrak hasi aurretik zedarriztatze bat egingo da leheneratutako eremuak kontserbatu ahal izateko (eta, bereziki, ibilgu aldatuaren eremua) eta elementu sentikorrak babestu ahal izateko.

Urbanizazio-obrak egikaritzen diren bitartean behar diren neurri guztiak hartuko dira eraginak eta kutsadurak saihesteko ibilgu perimetralean, leheneratutako eremuetan, lurzoruan eta isurketa uretan, airearen kalitatean, bai eta gainazaleko uraren kalitatea eta bideak babesteko eta soinu-emisioei buruzko araudia betetzeko ere.

## 13. art.- XEHETASUN-AZTERLANAK

Ordenantza hauetan eta Lurzati Eraikigarrien Ordenantza Partikularretan ezarritakotik ondorioztatzen bada Xehetasun Azterlanak egin behar direla, Xehetasun Azterlan horiek lurzati eraikigarri bakoitzaren eremu osoa, sarbide-sistemak eta azpiegituren harguneak barne hartu beharko dituzte derrigorrean, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean adierazitako zehaztapenak eta eskatutako dokumentuak beteko dituzte.

## 14. art.- ERAIKITZEKO AHALMENA ERABILTZEA

Eremuko lurzati eraikigarrietan ezingo da eraikuntza-obrarik egin hirigintzako beharrezko dokumentuak eta proiektuak ez badira behin betiko onartu: Plan Berezia, UJP, Urbanizazio Proiektua eta Lurzatiketa Proiektua.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Udalek urbanizazioa jasotzen dutenean, obrak egiteko lizentzia eskuratu beharko da, eta horretarako proiektu teknikoa aurkeztuko da, hala badagokio, aurretik jarduera-baimena tramitatuta.

Eraikin pribatuen lehen erabilerako lizentziak emateko, aurretik gauzatu beharko dira proiektu honen 4. dokumentuan (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA) kasu bakoitzerako ezartzen diren urbanizazio-obrak.

Eraikitzeko epeak ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 48. artikuluan aurreikusitakoak izango dira. Eraikitzen hasteko epeak Urbanizatzeko Jarduketa Programan zehaztuko dira.

**15. art.- EREMUKO JABARI ETA ERABILERA PUBLIKOKO LURZORUA MANTENTZEKO ETA KONTSERBATZEKO BALDINTZAK**

Derrigorrean eta dohainik lagako dira Plan Berezian jabari edo titulartasun publikotzat jotzen diren lursailak.

Eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta eremua batez ere industria-lurzati pribatuen jabeek erabiliko dutenez, jabari eta erabilera publikoko lurzorua, eta, bereziki, bide, espaloi, Apattaerreka kalea industrialdearekin komunikatzen duen bidegorri eta industria-plataformen artean sortutako ezponda berdeetarako nahiz zerbitzu-sare eta azpiegitura publikoetarako lurzorua, ibilgu perimetrala eta uraldiei eusteko tanga barne direla, kontserbatzea eta mantentzea (guztia O-09 planoan jasota dago) "18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" azpieremuko jabe guztiei dagokie, eta, horretarako, dagokion Kontserbazioko Hirigintza Entitatea eratuko dute, behar bezala erregistratuko dutena, 20 urterako.

Parke moduan eta jolaserako eta aisiarako egokituko diren espazioak eta horietako ekipamendu publikoa kontserbatzea Ibarrako eta Tolosako udalei dagokie.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

## II. TITULUA INDUSTRIA-LURZATIETAN ERAIKITZEKO ETA LURZORUA ERABILTZEKO ORDENANTZAK

Eraikinen energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarriak erabiltzea eta kogenerazioa aintzat hartuko dira eta sustatuko dira, bai eta ur beroaren eta/edo berokuntzaren hornidurarako eguzki-kaptadoreen edo beste energia berriztagarri batzuen eta metagailuen inplementazioa ere. Era berean, eraikinen barne-banaketa zainduko da, argiztapenaren eta eguzki-aprobetxamenduaren baldintzak optimizatzeko.

Eraikuntza Proiektuei dagokienez, sarrerek eta/edo irteerek segurtasun, ikuspen eta argiztapen baldintza egokiak betetzeko ahalegina egingo da, zokoak saihestuta eta, hala badagokio, ate bikoitzak edo eragin horietarako egokitzat jotako beste edozein sistema erabilita. Berdin jokatuko da igogailuen, garajeen eta abarren kasuan.

### 1. KAP.- ERABILTZEKO BALDINTZAK

#### 16. art.- INDUSTRIA-ERAIKINAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

Industria-lurzatietako eraikinak erabiltzeko baldintzak ordenantza hauetako 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituz arautuko dira.

#### 17. art.- LURZORU EZ ERAIKIGARRIA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Industria-lurzatietako lurzoru librea sarbideetarako, aparkalekuetarako, zamalanetarako eta/edo lorategi-eremuetarako erabiliko da.

Lurzoru ez eraikigarrian debekatuta dago edozein eraikin-mota, behin-behinekoak nahiz iraunkorrak, eraikitzea; hala ere, haren izaera dela eta, eraikinetik bereizita edo eraikinari atxikita egotea komeni den instalazioak (tangak, depositua, transformadoreak, etxolak, kontagailuen gelak, etab.) jartzeko baimena eman ahal izango du administrazio eskudunak. Kasu horietan lurzati mugakideetan eragozpenik ez sortzea hartuko da kontuan.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Industria-lurzatietan berdegune pribatu gisa kalifikatuta dauden esparruak lorategi-eremuetarako eta plataformen arteko ezponda eta lubetetarako erabiliko dira, ordenantza hauetako 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

## 2. KAP.- ERAIKITZEKO BALDINTZAK

### 18. art.- LURZATIETARAKO SARBIDEAK

O-6.A planoan (BIDE SAREA. LERROKADURAK ETA SESTRAK) irudikatuta dago bide-sare publikotik lurzatietara ibilgailuen sarbideak egiteko gomendatutako kokapena. Sarbideak antolamendu-planoetan adierazita dauden kokapenera eta sestretara egokitu beharko dira. Lurzatiren baterako sarbidean aldaketa nabarmenen bat egiteko, baldin eta beste lurzati batzuen jabeei galeraren bat eragiten badie edo sestretan edo urbanizazio-elementu finkoetan aldaketaren bat eragiten badu, hori justifikatzen duen hirigintza-espedientea idatzi eta onartu beharko da.

Lizentzien titularra edo titularrak lurzatietarako sarbideak eraikitzean bide-sare publikoan egiten diren kalteak konpontzera behartuta daude, eta erakunde eskudunak abalak ezartzeko eska dezake lizentzia emateko aktan, kalte horiek konponduko direla bermatu ahal izateko.

### 19. art.- LURZATI ERAIKIGARRIEN SESTRAK

Lurzati eraikigarrien sestrak O-6.A planoan (BIDE SAREA. LERROKADURAK ETA SESTRAK) eta O-6.B planoan (SEKZIO EREDUAK) daude ezarrita.

Sestra horiek gutxi gorabeherakoak dira, ±0,5 m-ko aldaketa onartzen da, eta zehatzago doitu ahal izango dira lurzati bakoitzaren Urbanizazio Proiektuan, Xehetasun Azterlanean, Eraikuntza Proiektuan eta Urbanizazio Obren Proiektuan, baldin eta ez badira eremuko bide-sare nagusi publikoaren ezaugarriak eta sestrak aldatzen eta kasu bakoitzean lurzati mugakideetan sortzen diren eraginak konpontzen badira.

Lurzati mugakideek sestra ezberdinak dituzten kasuetan, ezpondak edo eustormak egingo dira lurzatien mugetan. Lurzati batean zabalguneak edo plataformak eratzeko egiten diren lur-mugimendu edo horma guztiak lurzatiaren barruko urbanizazio-obrak izango dira, eta ezingo zaizkio hirigintza orokorrari egotzi.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Beharrizan funtzionalak direla eta, sotoetara edo goiko solairuetara sartzeko arrapalak jarri behar izanez gero, lur eraikigarriaren barnealdeko perimetroan jarri beharko dira, ahal dela, eta lurzatien barnean nahitaez; gainera, % 15eko malda izango dute gehienez ere. Bide publikoari lotu aurretik gutxienez 5 m-ko luzera duen zatia eraikiko da, lurzatiaren kanpoko mugatik kontatzen hasita, % 2 baino gutxiagoko maldarekin.

## 20. art.- LURZATIEN MUGAKETA

Lurzati bakoitzaren mugak O-04 planoan (ZONAKATZE XEHATUA) irudikatutakoak dira.

Lurzatiak hormatxo eta/edo itxitura perimetralekin itxi ahal izango dira, eta altuera osoa gehienez 2,50 metrokoa izango da.

## 21. art.- ERAIKUNTZAREN LERROKADURAK

Lurzati bakoitzeko eraikinaren kanpoko lerrokadura-mugak O-04 planoan (ZONAKATZE XEHATUA) eta O-6.A planoan (BIDE SAREA. LERROKADURAK ETA SESTRAK) adierazitakoak izango dira.

Kanpoko lerrokadura-muga horien baitan, dagokion Eraikuntza Proiektuak edo Xehetasun Azterlanak zehaztuko ditu eraikinen lerrokadurak, industrien beharren programaren arabera eta ordenantza hauetan eta dagokion fitxa partikularrean jasotako zehaztasunak eta aprobetxamenduak errespetatuta.

Lurzati Eraikigarrien Ordenantza Partikularrek baimentzen badute, lurzatiak sail txikiagotan edo modulutan banatu ahal izango dira. Horretarako, lurzati osoaren antolamendu globala egitea eskatuko da Xehetasun Azterlan bateratuaren bidez. Xehetasun Azterlanean ezarriko dira zatien dimentsioak, eraikuntza-aprobetxamenduen banaketa, eraikinaren lerrokadura-mugak, plataformen sestrak eta elkarguneetarako konponbideak, sarbideak eta barruko kaleak, aparkalekuak, kanpoko itxiturak, barruko zerbitzu-sareak eta sare orokorretako harguneekin lotzeko sistema.

Ordenantza hauek ezarriz eraiki ahal izango den sotoko solairuaren lerrokadurek ezin dituzte sekula gainditu eraikinarentzat baimendutako kanpoko lerrokadura-mugak.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

P, Q, R eta S lurzatietan, Indarrean dagoen EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta Ingurumen Azterlan Estrategikoan ezarritako irizpideei jarraituz, errespetatu egingo da aurreikusitako eraikin berriak gutxienez 12 metro atzeratzea Apatta errekastoaren ibilgu berritik. Urbanizazioa, bestalde, 5 metro atzeratuko da ibilgu horretatik.

Lurzati horietan guztietan ez da eraikiko hondoko drainetik 5 metroko zortasun-eremuan.

Errespetatu egin beharko da URA – Uraren Euskal Agentziaren txostenean, ubidearen kota dela eta, perimetroan desbideratzerik izan ez ziren emariak garraiatzen dituen hondoko drainaren proiekzio bertikalean, jabari publikoa mantentzen duenean, eraikuntza-erabilera galarazteari dagokionez, ezarritakoa ere. Drain hori eremuko bide nagusiaren azpitik lurperatuta doa eta O-10.A planoan (AZPIEGITUREN ESKEMAK. DRAINATZE OROKORRA ETA EURI-UREN SANEAMENDUA) dago irudikatuta.

## 22. art.- ERAIKUNTZA-OKUPAZIOA

Ordenantza hauetako fitxa partikularretan dago zehaztuta lurzati bakoitzaren gehieneko eraikigarritasuna, oinplanoko eta solairu estalgarriko okupazioa zehaztuta.

## 23. art.- ERAIKINEN ALTUERA ETA SOLAIRU KOPURUA

Lurzatien fitxa partikularretan eta sekzio-ereduetan zehaztutakoaren arabera, honakoak izango dira industria-erabilerarako eraikinen profilak eta altuerak:

* L, M, Ñ, P, Q eta S lurzatietan gehieneko eraikuntza-profila solairu bakarrekoa izango da, eta gehieneko altuera 12 m-koa, behar bezala justifikatutako behar funtzionalen bat egon ezean.

  Bulegoetarako eraikin espezifiko bat aurreikusten bada, gehieneko profila BS+2S izango da, eta gehienez 10 metroko altuera izango du estalkiaren erlaitzera arte.

* N eta R lurzatietan bi plataformen artean kokatutako eraikinen gehieneko eraikuntza-profilak aukera emango du ibilgailuen sarbidea bi altueratan egiteko, eta gehienez 8 metroko altueran goiko plataformaren sestratik gora.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Bertikalean neurtuko da eraikinaren altuera, proposatutako plataformaren sestratik edo, bestela, eraikin bakoitzaren fatxadaren garapen frontalaren erdian eta espaloiaren edo espazio libre urbanizatu mugakidearen sestratik azken solairuko sabaiko forjatuaren barruko aurpegira arte edo zertxaren azpiko kordoira arte, halakorik balego.

Bestalde, esparru osoa San Sebastián Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonen barruan dago. San Sebastián Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoak arautzen dituen planoan, eraikuntzek (beren elementu guztiak barne, adibidez, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipamenduak, igogailuen kutxak eta abar), lursailaren aldaketek edo objektu finkoek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak, euren palak barne, kartelak), eta errepideetako edo trenbideko galiboek gainditu behar ez dituzten altuerak (itsas-mailarekin alderatuta) zehazten dituzten azalera mugatzaileen maila-lerroak irudikatzen dira. Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostena barne hartzen da, baita, ordenantza orokor hauen eranskin gisa, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoen araudia biltzen duen I. Eranskina ere.

## 24. art.- SOTOAK

Sotoak baimendu ahal izango dira baldin eta behar bezala justifikatzen bada horien beharra industria-teknikarekin zerikusia duten arazoak konpontzeko edo pabiloian garatzen den jarduera osatzeko, edo aparkaleku gisa bakarrik erabiltzeko. Hau da, pertsonak luzaroan bertan egotea ekarriko ez duten erabilera osagarrietarako izango dira soilik.

Sotoetara sartzeko arrapalak, ahal dela behintzat, eraikinaren barruan kokatuko dira, eta edozein kasutan oso-osorik lurzatien barruan eta bide-sare publikoan inolako eraginik izan gabe.

## 25. art.- GOIKO SOLAIRUAK, SOLAIRUARTEAK ETA GANBARAK

Goiko solairuak eta/edo solairuarteak eraiki ahal izango dira, 23. artikuluan eta lurzati eraikigarri bakoitzaren fitxa partikularrean profilari eta altuerari buruz zehazten denari jarraituz. Goiko solairuak eta solairuarteak eraikitako azalera gisa konputatuko dira.

Goiko solairuak egiten badira, dagokien fitxa partikularrean adierazitako mugak eta baldintzak betetzeaz gain, eraikinaren aurrealdeko fatxadetan kokatuko dira nagusiki.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Industria-erabilerako lurzatietan ganbarak egin ahal izango dira, biltegi gisa edo jarduera nagusiaren erabilera osagarrietarako erabiliko dira, inola ere ezingo dira bulego eta etxebizitza gisa erabili, ez eta jendeari zerbitzua emateko eta pertsonak bertan luzaroan egoteko ere. Ganbarei buruzko arauketa udalerri bakoitzeko araudi orokorrean ezarrita dago.

## 26. art.- ESTALKIAREN PROFILAK ETA PROFILETIK GORAKO ELEMENTUAK

Erlaitzaren planotik abiatuta, eraikinen estalkiak egingo dira eta, eskakizun teknikoren bat ez badago behintzat, gehienez % 35eko malda izango dute. Erlaitzaren edozein puntutan neurtuta, erlaitzaren gainetik 2 m-ko altuera izango dute asko jota ere.

Estalkiaren profila gaindituz honakoak bakarrik jarri ahal izango dira: hura apaintzeko elementuak, eskaileren, igogailuen eta karga-igogailuen kaxak edota eraikinetako instalazioen berariazko elementuak (tximiniak, antenak, tangak, egokigailuak, prozesaketa-dorreak, argindarra hartzeko dorreak, publizitate-elementuak, eguzki-energia biltzeko panelak, eta abar) baldin eta elementu horien kokapena eta ezaugarriak behar bezala arrazoitzen badira.

Era berean, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoek baldintzatutako gehieneko altuerei buruzko 23. artikuluko azken paragrafoan adierazitakoa beteko da.

## 27. art.- GORPUTZ ETA ELEMENTU IRTENAK

Lurzati bakoitzaren eraikuntza-mugaren lerrotik kanpora, O-04 planoko (ZONAKATZE XEHATUA) eta O-6.1 planoko (LERROKADURAK ETA SESTRAK) lerrokadurek definitzen dutenez, ezar daitezkeen hegal irekiak nahiz itxiak, honela arautuko dira:

- Teilatu-hegala, gehienez 1 m-koa.
- Zokaloak, pilastrak eta fatxadaren gainontzeko apaindura-elementuak, betiere fatxadaren azaleko lerrotik 10 cm baino gehiago kanporatzen ez badira.
- Errotuluak edo argi-iragarkiak ezartzekotan, fatxadaren planoaren paraleloan jarriko dira, gehienez 50 cm irtengo dira eta sestraren gainetik 4,5 m-ra kokatuko dira.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

- Eraikuntza-lerroa errekastotik gutxienez 12 metro atzeratuko dela kontuan hartuta, R, S, T, U eta V lurzatiek ezingo dute hegalik eta bestelako elementu irtenik eraiki ekialdeko fatxadan lerro horretatik kanpora, eta, era berean, ezingo dute derrigorrezko gutxieneko 12 metroko erretiroa gainditu.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

## 3. KAP.- BIZIGARRITASUN- ETA HIGIENE-BALDINTZAK, ETA INGURUMENAREN DEFENTSA

### 28. art.- LOKALEN ALTUERA

Industria-jarduera produktiboetarako erabiltzen diren lokalen barruko gutxieneko altuera (amaitutako zoruaren sestratik amaitutako sabaiaren behe-kotaraino edo zertxaren beheko kordoiraino neurtuta), 4,00 m-koa izango da.

Bulegoetarako, aldageletarako, erakusketetarako edo ekoizpenerako ez diren beste erabilera batzuetarako lokalen gutxieneko altuera librea 2,50 m-koa izango da. Altuera hori 2,30 m-ra arte murriztu ahal izango da komunetan, armairuetan edota jendeak luzaro egon beharrik ez duen bestelako guneetan.

Sotoan lokalen bat egin behar bada, honen gutxieneko altuera librea ez da 2,50 m-tik beherakoa izango. Altuera hori inola ere ezingo da jaitsi egituraren irtenguneren bat, hodien bideraketak edota beste elementu batzuk direla eta, horiek guztiak zoladuratik 2,20 m baino gutxiagoko altueran jarri badira.

### 29. art.- HIGIENEARI BURUZKO ARAUDI OROKORRA

Aurreikusi diren jarduerak burutzeko bete beharko diren higiene-baldintzei dagokienez edo aldagelen eta komunen premia eta neurriei dagokienez, lokalen aireztapenaren eta argiztapenaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrean aplikatzekoak diren xedapenei jarraituko zaie.

### 30. art.- GAS-ISURKETEN KONTROLA

Antolamenduaren eremuan instalatzen diren industrien gas-isurketek sektorean indarrean dagoen araudian ezarritakoari eta gaian eskudunak diren agintarien erabakiei jarraituko diete.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

Airearen kalitatea bermatuko duten sistemak erabili beharko dira, ezarriko den industria-tipologiaren arabera, eta dagokion Jarduera Proiektuan justifikatu beharko da.

## 31. art.- INDUSTRIAKO HONDAKIN-UREN ETA EURI-UREN KONTROLA

Eremuan instalatuko diren industria eta jarduera guztiek derrigorrean beteko dituzte artikulu honetan jaso den araudiko xehetasun guztiak industriako hondakin-urak eta euri-urak husteari dagokionez, ur-isurketei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa alde batera utzi gabe.

- Artikulu honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten eta etxeetako hondakin-uren parekoak diren industriako hondakin-urak, bai eta sukalde-jantokietako, osasun-zerbitzuetako, dutxetako eta abarretako ur-isurkinak eta hozte-zirkuituetako (irekietako nahiz itxietako) purgak ere, industriako ur beltzen sarera bakarrik isuriko dira. Euri-uren sarea, beraz, teilatu eta estalkietako eta gainazaleko urbanizazioko euri-urak hartzeko bakarrik izango da.

- Hondakin- edo euri-uren arloan saneamendu-sarera isurtzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten industriek aurretratamendurako, arazketarako eta, hala badagokio, ur horiek eliminatzeko euren sistema ezarri edo instalatu beharko dute. Sare orokorrera isuri aurretik, lagin-kutxatila bat jarriko da dagozkion analisiak egin ahal izateko.

  Erabiltzaileak eraiki, ustiatu eta mantenduko ditu ordenantza honetan eskatutakoa betetzeko behar diren instalazioak.

- Saneamendu-sarea eta euri-urak bereizteko sarea diseinatu behar dira kainu-zuloek uraren bidea ez oztopatzeko moduan, EAEn eltxo tigrea ugaltzea eragozteko.

- Isurketen erregulazioa. Debekatuta dago hondakin-urak biltzeko sare orokorrera gai kutsatzaileak eta, zehatz-mehatz hala ez izanik ere, kideko edo antzeko eraginak dituzten eta ondoren zerrendatzen diren konposatu eta materia hauek isurtzea:

  a) Ondorengo efekturen bat sor dezakeen guztia:

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

- Nahasketa sukoiak edo lehergarriak sortzea.

- Instalazioetako materialetan eragin korrosiboak izatea.

- Hodietan ur-jarioa eta mantentze-lanak eragozten dituzten sedimentuak, butxadurak eta trabak sortzea.

- Instalazioak ikuskatzeaz, garbitzeaz eta mantentzeaz edo horien funtzionamenduaz arduratzen diren langileen sarbidea eragotz dezaketen ingurumen-baldintza toxikoak, arriskutsuak edo gogaikarriak sortzea.

- Araztegiaren prozedurak eta eragiketak nahastea, horren ondorioz diseinuan aurreikusitako tratamendu-mailak lortzea eragozten bada.

b) Honako produktu hauek:

- Gasolina, bentzenoa, nafta, fuel-olioa, petrolioa, olio hegazkorrak, toluenoa, xilenoa eta sukoia edo lehergarria izan daitekeen solido, likido eta gas oro.

- Kaltzio karburoa, bromatoa, kloratoak, hidruroak, perkloratoak, peroxidoak eta abar; eta, arriskutsua gerta daitekeen izaera inorganikoko solido, likido eta gas oro.

- Solido, likido edo gas toxiko eta pozoitsu guztiak, berez edo beste hondakin batzuekin nahastuz gero, sarearen arduradunarentzat arriskutsuak izan daitezkeenak edota jendearentzat gogaikarriak izan daitezkeenak.

- Errautsak, kedarrak, hondarra, lumak, plastikoak, zura, odola, simaurra, animalia-hondakinak, ileak, erraiak eta butxadurak sor ditzaketen edota garbitasun- eta mantentze-lanak eragozten dituzten gainontzeko elementuak.

- Disolbatzaile organikoak, pinturak eta koloratzaileak, edozein proportziotan isurtzen direla ere.

ESKU0c90fa38-f0ab-4ca4-9224-e8c84b90beea

- Mineral, landare edo animalia jatorria duten olio edota koipeak.

- Gai toxiko edo arriskutsuei buruz indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen guztiak.

c) Honako isurketa hauek:

- Industria-isurketak eta erabili ondoren botatzekoak diren likido kontzentratuak, baldin eta horien tratamendua isurketa horientzako planta berezian edo planta zentralizatuan egin beharrekoa bada.

- Erregaiak, erreaktiboak edo lehengaiak gordetzeko tangak garbitzean sortzen diren isurketa etenak. Horrelako garbiketak egitean kontuan hartu beharko da isurketak ez daitezela Estolderia Sare Publikora joan.

d) Ur garbiak:

- Larrialdi- edo arrisku egoerarik ez bada behintzat, debekatua dago isurketetan diluzio-ura erabiltzea.

- Debekatua dago ur garbiak (zirkuitu irekiko hozte-sistemakoak, euri-urak eta abar) hondakin-uren kolektoreetara hustea.

